

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2021eko abenduak 23 • 1210. zenbakia

GILDA LEHIAKETAK ZAPORE ONA LAGA DU

Zorionak eta urte berri on!!



EUKI

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA



www.euki.com Ifarkale, 1 behea. Eibar Tel: 943 204 291 asesoria@euki.com

La Salle Eibar



Zatoz gu ezagutzera!

2 urtetik 16 urtera

Matrikula Epea:
Urtarrilaren 17tik 28ra

943202133-943121698
www.lasalleeibar.eus



XXVI. Eibarko
Kirol Sariak

Abenduak 31
12:00etan
Coliseoan

**Eibarko
KIROL
SARIEN**

XXV. edizioa

Covid pasaporte
aurkeztu beharko da

Gonbidapenak
egunean bertan
jasoko dira leihatilan
(11:00-11:45)



*ZORIONAK EIBARKO KIROLARI ETA KIROL KLUB GUZTIEI
urte osoan aurrera eramandako lan guztlairengatik.*



Euskarazko komunikabideak ere Covid-19aren ondorioak pairatzen ari gara

Aurreko ostiralean Gasteizko Legebiltzarrean Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko Eusko Jaurlaritzak zenbait komunikabideri esleitutako laguntzen inguruan emandako azalpenak entzun ondoren, uste dugu ezinbestekoa dela laguntza horiek gainerako euskarazko komunikabideetara zabaltzea.

Ez dago ez-ohiko laguntza horiek eguneroko prentsara edo irratietara mugatzeko arrazoi objektiborik. Covid-19ak eragindako kalteak komunikabide guztiek pairatu dituzte eta pairatzen ari dira, bai eta euskarazko komunikabideak ere. Hortaz, ez da ulergarria laguntzak komunikabide batzuetara mugatzea. Laguntza horiek zabaldu egin behar dira, euskarazko komunikabideek ere Covid-19ak eragindako kalteei aurre egiteko laguntza behar baitute.

Euskarazko komunikabideek pandemia garaian ahalegin berezia egin dute, ez bakarrik informazio-gaitasunari eusteko, baizik eta gaitasun hori indartzeko. Ahalegin berezia, bakoitzak bere esparruan pandemiak eskatzen zuen neurrian erantzuteko. Eta herritarrek ahalegin hori eskertu dute. Ikusi besterik ez dago pandemia garaian nola handitu den euskarazko komunikabideen kontsumo digitala. Horrelako laguntza puntualek edota berrikuntzari lotutako inbertsioek euskarazko komunikabideak kontuan hartzen ez badituzte, zaila izango da aurrera egitea.

Honegatik guztiagatik, Hekimen elkartetik Eusko Jaurlaritzari berresten diogu bere garaian egindako eskaera, alegia, Covid-ak eragindako kalteak arintzeko helburuz onartutako laguntza hauek euskarazko gainerako komunikabideei ere zabaltzea.

Igor Astarloa (Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteko zuzendaria)

“Sekulako kaltea egin digu. Santomasetan, Elgoibarren... egiten ditugun hilabete honetako salmenta nagusiak. Hilabeteko diru sarreren erdiak galduko ditugu. Guretzat aparteko paga baten parekoak dira azoka hauek, eta kalte handia egin digu bertan behera utzi izanak. Gauzak ez dituzte zentzuz egin. Supermerkatu eta saltoki handiak, ordea, leku itxiak dira, jendez beteta daude, eta distantziak ez daude ezarrita. Dena aldrebesa da. Erakundeek zabaltzen duten mezua da supermerkatuetan erostea dela segurua, baina hori gezurra da; gainera, jendea supermerkatuetan erostera bultzatzen dute. Lehen sektorea indartu eta bultzatu beharrean, babesik gabe uzten gaituzte; bizkarra eman digute”.

EZOZI ETXEBERRIA, Soraluzeko baserritarra

“Farmazietako antigeno testen festa dago azkenaldian Hegoaldean. Negozio ederra egiten ari dira herritarren beharren kontura. Gainera, test horiek ez dute ofizialki ezertarako balio, COVID ziurtagiriaren baliokide izan daitekeen antigeno testa eskuratzeko, zentro jakin batzuetara joan behar da Hegoaldean, eta 48 orduko ofizialtasuna besterik ez da lortzen, gutxienez 35 euro ordainduta. Iparraldean botiketan egin dezakete: txertaturik daudenek, doan, eta gainerakoek, hogeiturotik gora ordainduta. Testak doan izan beharko lirateke leku eta egoera guztietan, unibertsaltasun eta berdintasun printzipioa urratu nahi ez badira. Ziurtagiriak, bere hutsean, eskubideak murrizten baititu, ez kutsatzeak”.

AMAGIOIA MUJIK (zutabegilea)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NORBERAN KONTURA JARRI.- Inoren menpeko lana utzi eta nagusia nor bera den lanean hasi. “Ofiziuia ikasi ondo eta gero norberan kontura jarri”.

NORBERE BATEN EGON.- Lasai egon. “Nere baten banenguan, eta batera batera jausi naiz”.



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Yanire Sagredo
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Eibarko argazki-lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

>>> Juan Antonio Palacios eta Pedro Arriola izan dira 'Harro nago zutaz, Eibar! Vs Amorratzen nauzu, Eibar!', Udalak antolatutako argazki-lehiaketako irabazleak. Palaciosek 'Harro nago zutaz' atalean lortu du saria, "Lau hodi en iturria" izenekoarekin eta 'Amorratzen nauzu' ataleko saria Arriolak eraman du, "Ibargain" izeneko argazkiari esker. Bakoitzak 500 euroko saria jasoko du.

Guztira 28 argazki jaso dituzte antolatzaileek eta orain herribozketaren fasea zabaldu dute: aurkeztutako argazki guztiak Udalaren webgunean (<https://formularioak.eibar.eu/eu/argazkia675/>) jarri dira ikusgai, herritarrek botoa eman dezaten. Fase honetako irabazleak 150 euroko saria jasoko du (bozketaren hilaren 31n amaituko da).

Negulekuak antolatu dituzte Gabonetarako

>>> Udaleko Gazteria Sailak, Eibar Merkataritza Gunearekin elkarlanean, Negulekuak izeneko ekimena antolatu du Gabonetarako. Osasun egoerara moldatutako Gabonetako haur parkea da eta aurten, ia bezala, hiru tokitan banatuko da: Errebal Plazia, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua. Ekipamendu bakoitza haurren adin jakin bati zuzenduta egongo da. Haur eta txanda bakoitzeko sarrera kostua 3 eurokoa izango da. Hala ere, Eibarko dendetan banatuko diren bonoekin sarrera doakoa izango da.

Errebal Plazia 2016, 2017 eta 2018an jaiotako haurrentzat prestatuko da, eta txanda bakoitzean 30 plaza egongo dira. Sarrera El Casco eraikinaren parean dagoen atetik izango da eta irteera Muzategi kalera ematen duen atetik (eskailera mekanikoen ondoan). Nahiz eta adin tarte honetako haurrek maskararik ez erabiltzeko eskubidea izan, musukoarekin joatea gomendatzen dute.

Bestalde, San Andres eskolako gimnasioa, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako haurrentzat izango da eta



40 plaza eskainiko ditu txanda bakoitzean. Bertan, ginkanak, erronkak eta mugimendu-joko desberdinak egin ahal izango dira. Sarrera ate nagusitik egingo da eta irteera goialdetik, Arane kaleetik.

Eta Astelena pilotalekua Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako haurrentzat izango da eta 50 plaza izango ditu. Kotsolen, erronken, ginkanaren eta mugimenduarekin lotutako jolasen gune bat egongo da, baina ez da puzgarririk egongo.

Hiru guneak abenduaren 27, 28, 29, 30 eta 31n eta 2022ko urtarrilaren 3, 4 eta 8an irekiko dira eta, bertara joateko, alde aurretik hitzordua eskatu beharko da derrigorrez, horretarako prestatutako webgunean: <https://hitzordua.eibar.eu/astelenaparkea/eu>.

Herriko 180 tokitan eros daiteke Oparitu Eibar txartelarekin

>>> Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Oparitu Eibar izeneko kanpaina abiatu du, erosketa txartel baten bitartez herriko dendetan erosketak egitea sustatzeko asmoz. Txartela 40, 60 edo 100 eurotan eros daiteke, Interneten, www.erosieibarren.eus plataforman edo 747400919 telefono zenbakira deituta. Txartelarekin kanpainarekin bat egin duten 180 denda eta ostalaritza establezimendu baino gehiagotan erosteko aukera dago eta gastatu den dirua zuzenean txartel horretatik kobratuko dute. Txartela erabiltzeko gehienezko eperik ez dago. Bat egin duten establezimenduen zerrenda aipatutako webgu-



nean ikus daiteke eta txartelarekin batera zerrenda eta informazioa biltzen dituen eskuorria emango dute. Gainera, Oparitu Eibar txartela erosteagatik, 5 txartelen zozketetan parte hartuko dute erosleek (zozketak abenduaren 29an eta urtarrilaren 4an izango dira eta 100 euroko txartela irabaz daiteke).

Erdiguneko kaleak trafikoarentzat itxiko dituzte bihurtik hasita

>>> Gabonak direla eta, herriaren erdialdeko kaleetan trafikoari eragingo dioten aldatetako egingo dira bihurtik bertatik hasita, Udaltzaingotik jakinarazi dutenez: abenduaren 24an, 12:00etan, erdigunea trafikoarentzat itxi egingo dute,

oinezkoek bakarrik erabil dezaten. Aldaketa hori abenduaren 26ko 22:00ak arte egongo da indarrean. Halaber, abenduaren 31n, 12:00etan, berriz itxiko dituzte erdiguneko kaleak ibilgailuentzat, urtarrilaren 2ko 22:00ak arte.



Euriak eragindako kalteak txikiak izan direla adierazi du Udalak

>>> Eibarren azken hamarkadetan uholdeen prebentzioaren arloan egindako inbertsio garrantzitsuei esker, Euskadin izan diren azken uholdeek “eragin txikia izan dute herrian”, Udalaren arabera. Gogora ekarri nahi izan dutenez, “1983. eta 1988. urteetan Eibarren izan ziren uholde larrien ondoren, Udalak, beste erakunde batzuekin batera, milioiak inbertitu zituen kanalizazioetan, ubideak hobetzen eta saneamendu-sareetan. Ego ibaian egin ziren lan gehienak eta baita uholdeak eragiten zituzten erreke-

tan ere, hala nola Unbe, Txonta edo Matsariako erreketan, Ibur Errekan edo Asua Errekan. Inbertsio horien ondorioz, azken egunotako euriteekin sortu diren ur-emari garrantzitsuek ez dute ia arazorik sortu Eibarren. Izan ere, ibaiaren eta erreka-stoen ibilguak handitzeak, hobetzeak eta zabaltzeak erregistratutako ur-kantitate handia bereganatzea ahalbidetu dute. Arazorik nabarmenenak Azitain-Erisonoko industrialdeko goi aldeko errepedean, Unbeko sarbidean eta saihesbidean gertatu dira”.

Azitaingo Industrialdeak 7 modulu dauzka eskualdeko ekintzaileentzat eskuragarri

>>> Azitaingo “Eibargunea” enpresa-haztegia Sprilur-en (Deba Bailarako Industrialdea), Eibarko Udalaren eta Debegesaren arteko lankidetzakordio baten ondorioz sortu zen, eskualdeko ekimen ekintzaileak bertan ezartzen laguntzeko. 176 metro koadroko espazio bat da eta 7 modulu independente, 2 bilera-gela eta office bat ditu, Debarreneko ekintzaileentzat.

Eman dituzten datuen arabera, “Eibargunea” toki bat eman die proiektu bat hasteko

eta enpresa munduan sartzeko atonduetako espazioak behar izan dituzten 8 ekimen ekintzaileari: “Hauek izan dira aurtengo Azitaingo Eibargunean sartu diren bi ekimenak: Kristina Mirchuk, Geist (aholkularitza eta ezagutzaren kudeaketa) eta Lander Martinez (arkitekto-rako zerbitzu profesionalak). Gainerako ideia ekintzaileek, proiektuen abiarazte-fasea bukatu ahal eta beren jardueren hazkundeak hartara bultzatuta, erabaki zuten beste kokapen batzuetara joatea”.



FUNEUSKADI
Grupo Asencia

FUNERARIA MUGICA
Funeraskadi

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Tanatorio Crematorio Bigi y Alto Gato
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

JESUS MARI HERMOSA ALBERDI
2021-12-20

“Gugan egongo dira betiko zurekin bizi izandako momentu guztiak. Eskerrik asko bidaia-lagun ezin hobea izateagatik, amestu ezin daitekeen Aita, senarra eta aitxitxa izan zara”

-ETXEKOAK-



Zabaldute 55-59 urte bitartekoek COVID-19aren kontrako txertoa ipintzeko Internet bidezko hitzordua

>>> Martitzen arratsaldeaz geroztik COVID-19tik babesteko txertoa ipintzeko txanda har dezakete 55 eta 59 urte bitartekoek, Osakidetzaren web-orriaren bidez. Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren berbetan, "aurrekoan esan genuen bezala, herritarrei txertoa hartzera joateko eskatzen diet, baina Osakidetzaren oharrei jarraitzeko". Martitzenean bertan jakinarazi zuenez, kutsadura-mailek nabarmen egin dute gora, gaixotasun horren ondorioz ospitaleetan gero eta joan-etorri gehiago dago eta epe laburrera ez da ikusten joera aldatuko denik. Gainera, azken egunotan, Omicron aldaeraren 220 kasu erregistratu direla adierazi zuen.

Asteleheneko datuen arabera, aurreko lau egunetan 120 koronabirus kasu berri atzeman zituzten Eibarren eta herriko

intzidentzia-tasa gehiago jaitsi da, 1597,87an kokatuz. Debarreneneko beste herriei begira Ermuan 60 kasu berri atzeman zituzten (1516,95); Elgoibarren 32 (1065,86), Mutrikun 30 (1919,46), Deban 28 (1925,55), Soroluzen 14 (1434,32), Mallabian 2 (1008,40) eta Mendaron bakarra (803,78).

Birusari aurre egiteko onena
Sailburuak txertaketa-prozesuaren berri ere eman zuen, "birusari aurre egiteko tresnarik onena" hori dela nabarmenduta. Euskadin, biztanleriaren %92k dosi bat du gutxienez, eta %91k jarraibide osoa; eta 60 urtetik gorakoena ia %80k errefortzu-dosia du. Halaber, 12 urtetik beherakoena %8k txertoa du. "Astebete baino ez da igaro txertaketa martxan jarri zenetik, eta 15.300 haur inguruk jaso dute txertoa".

COVID ziurtagiri digitala eskuratzeko laguntza

>>> Teknologia berriekin askok izan ditzaketen arazoak ikusita, Untzagako jubilatuek etxekoek boluntario taldea osatu du, COVID ziurtagiria nola eskuratu daitekeen ez dakitenei laguntzeko. Ondo moldatzen ez direnei COVID ziurtagiria eskuratzen lagunduko diete, honako ordutegian: 11:00etatik 13:00era Untzaga Jubilatue Etxeko bulegoetan eta 17:00etatik 19:00etara Informatika-Zibergelan. Interesa dutenek telefono mugikorra, TIS (Osakidetzaren txartela) eta NAN eraman beharko dute.



Eibarko jaiekin agurtu dituzte 675. urteurreneko kronikak

>>> Eibarko herriaren sorreraren 675. urteurrenaren harira, Jose Antonio eta Martin Azpilikueta aita-semeak hainbat biñeta marraztu dituzte hileroko, horien bitartez gure herriari bu-

ruzko kronikak kontatzen joateko. Bilduma ederra osatu dute eta biñeta guztiak Interneten eman ditu argitara Ego Ibarra, egoibarra.eus bere webguneko azpiatalean.





Urtarrilaren 5era arte egongo da Untzagan Eibart artisautza azoka

>>> Barixakuaz geroztik dago zabalik Untzagan Eibart artisautza azoka. Aurtengoa 17. edizioa da eta 10 artisau ari dira parte hartzen, zortzi postutan banatuta: Hartara, Kilikilima, Eskulan, Eskusutxo, Madear, Ediciones Membrilla, Eskune, Zuehini, Zirrimarra eta La Zahera. Betiko moduan, zilarrezko, beirazko, narruzko, egurrezko... produktu ugari eros daitezke bertan, den-denak artisau eran egindakoak.

Urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik (abenduren 25ean eta 26ean eta urtarrilaren 1ean itxita), goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:30era.

Iazko moduan, COVID-19tik babesteko neurri guztiak hartu dituzte. Azoka Eibart elkarteak antolatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez eta dirulaguntzarekin zabaldu dute eta Eibarko Udalaren laguntza dauka.



Bigarren eskuko azokak oso harrera ona izan zuten

>>> Udalaren eskutik aurreko zapatuan Errebal Plazia eraikinean egindako bigarren eskuko azokak herritar askoren interesa piztu zuen eta goiz osoan ibili zen jendea, bertan salgai

ipini zituzten erabilitako gauzak, orotarikoak, begiratzen eta erosten. Parte hartzera animatu zirenen eskaintza zabalaz gain, umeendako tailerrak ere egiten ziren.



Meza egunetan bisitatu daitekeen jaiotza ipini dute Azitainen

>>> Urtero bezala, Azitaingo parrokian jaiotza ederra ipini dute ikusgai Gabonetarako. Elizako arduradunek jakinarazi dutenez, domeketan eta jai egunetan ospatzen den 10:30eko

meza hasi aurretik eta amaitu ostean eliza zabalik egoten da eta, beraz, nahi duenak orduan dauka ikustera joateko aukera, "besoak zabalik" hartuko dituzte eta.



Kapitalismo basatiari aurre egiteko azoka egin zen Untzagan

>>> Gaur egun gure artean nagusi den kontsumismo eredutik kanpora, gauzak beste modu batera kontsumitu daitezkeela erakusteko asmoz, Nalua talde

feministaren eskutik doako truke azoka hartu zuen Untzaga plazak aurreko asteburuan. Era guztietako arropak, osagarriak, liburuak... Denetarik egon zen.

Erronka solidario arrakastatsua

>>> Buruko Osasun Konfederazioari laguntzeko asmoz CrossFit Eibarrek antolatu zuen erronka solidarioak oso harrera ona izan zuen eta jende asko animatu zen bizikleta estatiokoan edo arraunean egitera.



Animaliak bedeinkatzen ziren San Anton egunean

Abuztuko jaiak baserritarrek antolatzen dituzte: meza, herri-kirolak... 2013. urtera arte, San Anton eguna ospatzen zen urtarrilean. Animalien patroia denez, baserritarrek animaliak eta landareak eramaten zituzten eta, meza ostean, abadeak bedeinkatu egiten zituen. Meza ostean hamaiketakoia egoten zen.



Azitaingo ermita, 1965. urtean, zaharberritzeko lanak egin aurretik (hegoaldeko fatxada).

PLAZAOLA



Doroteo Urkia Lasuen
(1938)

Doroteo Urkia Lasuen Zaldibarren jaio zen 1938an. Bi urterekin Eibarrera etorri ziren bizitzera, Arrate Ballera. Maltzagako eskolan ikasi zuen 14 urtera arte eta ondoren, bi urte egin zituen Armeria Eskolan. AGMEEn egin du lan bizitza guztian. Azitaingo Ermitarekin oso lotuta egon da.

Doroteo Urkiari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Hau da San Anton, patron de los animales. Zelebratzen da eneruan. Baiña oin bai? Don Felix zeganian bai! (...) Lehen erromerixak eta kristonak egitten ziran San Anton egunian! 2013ra arte egitten zan mezia. Mezia eta bedeinkaziñua, animalixeri, eruaten zittueneri. Igual katua, edo txakurra, edo konejua edo oillarra. Mezia amaittu eta errezoren bat egitten eban...”

E
IBARTARREN



Olentzero ibarkurutzen (1971-72). Farola eskuan duen mutikoa Gorka Kruzeta Olañeta da. PLAZAOLA.


Gabonetan euskarazko kantak kantatzera

Berak 14 urte zitueneko argazki baten inguruko azalpenak. Gabonetan baserritarrez jantzita irten ziren Gisasola andereñoarekin, euskarazko kantak abestera. Orduan hori ez zen ohikoa; lehenengo urteak izan ziren.



Maite Zanguitu Arana
(1945)

Bidebarrieta kaleko 56. zenbakian jaio zen eta hantxe bizi izan da beti. Aita Zesareo Zangitu (osintxuarra) eta ama Maria Arana (1912) eibartarra. Maitek idazkari-ikasketak egin zituen Aldatze Ikastetxean eta 14 urterekin lanean hasi zen SIMES lantegian. Handik berehala SOLAC lantegira pasa zen eta bertan lan egin zuen urte askoan.



Maite Zanguituri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Gisasola da hau, baiña izena ez naiz gogoratzen (...). Profesoria, bai (...). Ni nun nagon? Hamen [Hor zekazuzen 14 urte] Bai (...). Lehelengo urtiak izan ziran ipiñi zebela hola, zeozer urtetzeko. Bestela ez zan urtetzen. Eta gaiñera euskeraz eta kantatzera oindiok holan ez zan urtetzen [Gaiñera, basarritar jantzitta...] Hori ba, hori ba. Ibili giñan ez dakit zenbat lekutan erropen billa eta... Eta azkenian ba (barreak). Ez, erosi ez. Honbre! Galdetu ez dakit nun ta, konsegidu eta ipiñi. Bestela, erosi bez! [Gabonetako kantuak ta?] Bai, bai, ez naiz gogoratzen zer kantau genduan, igual lagun bat akordauko da. Baiña euskeraz ziran, eh!”

Khalifa Mohammedek Eritrea hobeto ezagutzen lagunduko digu. Askorentzat oso ezezaguna da Afrika ipar-ekialdean dagoen herrialde hau eta gure protagonista han jaio zen, Adi Keyh izeneko herri batean. “Etiopiako mugatik nahiko hurbil dago, gune menditsu batean. Nahiko klima hotza du, Itsaso Gorriaren inguruan dauden lurren edo barnealdeko lur-baxuekin alderatuz”, azaldu digu.

Etengabeko gatazka

Afrikako beste herrialdeek bezala, Eritreak Europako herrialdeen kolonizazioa jasan du. Lehenik, portugaldarrak iritsi ziren XVI. mendean. 1869. urtean konpainia italiar batek Eritrea erosi zuen eta 13 urte geroago Italiako gobernuak herrialdearen eskubideak erosi zizkion konpainiari. 1941ean armada britaniarra sartu zen eta 1952an NBEk Etiopia eta Eritrea federazio berean egotea erabaki zuen. 1961ean Haile Selassie Etiopiako erregeak Eritrea Etiopiako probintzia soil bihurtu zuen eta 30 urteko gerra hasi zen herrialde bien artean, 1991ra arte. Hala ere, modu batean edo bestean gatazkak bizirik dirau gaur egunera arte, 1993an eritrearrek independentzia lortu zuten arren.

Arma artean egotera behartuta

Khalifa 1966an jaio zen. Hau da, Eritrea Etiopiako parte zenean, eta aipatutako prozesu guztia lehen pertsonan bizi izan zuen. “Gerra sasoiari jaio nintzen eta ikasketak laga behar izan nituen Etiopiako armadak zerbitzu militarra egitera behartu ninduelako”, gogoratu du. Entrenamendu militarra jaso zuen sei hilabetez. “Gogorra izan zen. Gainera, Etiopian amhareraz egiten dute eta nire ama hizkuntza sahoa da, eta horrek gehiago zaildu zituen harremanak”, diosku. Entrenamenduaren ondoren, zerbitzu militarra egin zuen Etiopiako Tigray eskualdean hiru urtez. Etxera itzuli zenean ikasten jarraitu eta bigarren

Bakearen bideari jarraituz



Eritrea laga ondoren bidaia luzea egin du Khalifak Eibarren etxea aurkitu arte.

hezkontza amaitu zuen. “Ingelesez”, azpimarratzen du (Eritreako hizkuntza ofizialak tigrinyera eta arabiera dira). Ikasketak amaitu arren, beste gatazka militar bat gurutzatu zen bere bizitzan. “Eritrearen Askapenerako Frontea gure hirian sartu zen 1990ean eta gerran parte hartzea eraman ninduten behartuta”, diosku. Entrenamendua jaso zuen, gerran egon zen, baina taldea lagatzea erabaki eta Sudanera alde egin zuen. Errefuxiatuen esparruan

bizi izan zen zazpi urtez, aita gaixotu zen arte. “Esparruan tigrinyera irakaslea nintzen, baina Eritreara itzultzea erabaki nuen aitarekin egoteko”, azaldu digu. Etxera heldu zenean, 1994tik Eritreako gobernuak derrigorrezko zerbitzu militarra ezarri zuenez, berriz ere armak hartzea behartu zuten Khalifa. “Sei hilabeteko entrenamenduaren ondoren, Defentsa Ministerioan lanean jarri ninduten polizia-militar bezala”, gehitzen du.

Odisea Eritreatik irten ondoren

2004an lana laga zuen bizkarreko gaitz baten ondorioz eta autobus-kontrolatzaile lanetan hasi zen. “Ni irten nintzen, baina eritrear askok ez dute aukera hori izan eta militar bezala jarraitzen dute behartuta”, dio suminduta. “Horregatik, eritrear gazte askok herrialdea uzten dute”, gehitzen du. Berak ere horrela egin zuen. “Autobusetako lanaz gain, gauean okindegian lan egiten nuen gutxieneko soldata bat edukitzeko, baina gobernuak gauz irtetea debekatu zuen eta hori barik geratu nintzen. Bertan etorkizunik ez nuela ikusita, herrialdetik alde egitea erabaki nuen”, diosku. Ez zen batere erraza izan: “Lehenik, mugara heltzea lortu nuen, ez dena batere erraza, herri batetik bestera joateko baimenak behar dituzulako. Gero, gizakiekin trafikatzan dutenek Sudanera igarotzen lagundu zidaten eta Khartumera joan nintzen, hiriburura. Han lan batzuk egin nituen eta emaztea eta seme-alabak etorri ahal izan ziren, baina Sudanen ere gauzak ez dira batere errazak eta alde egin behar genuela pentsatu genuen. Beraz, trafikatzailerekin Egiptora joan ahal izan nintzen eta, Mediterraneo itsasora heldu nintzenean, egurrezko itsasontzian sartu eta Italiarainoko bidea egin nuen. Itsasoan hilko nintzela sentitu nuen pare bat aldiz, baina zorionez lurra hartu genuen Italian”.

Italiatik Euskal Herrira

Italian NBEren errefuxiatuen programa batean sartu eta Espainiara eraman zuten. Madrildik Donostiara etorri zen Gurutze Gorriari esker (“bihotzez eskertzen diet egiten duten lana”) eta Irunen pisu batean bizi zen Eritreako beste errefuxiatu batzuekin. Orain dela pare bat urte familia hona bizitzera etorri ahal izan zen eta, harrezkero, Eibarren bizi dira. “Hemengo bizimodura ohitzen ari gara, seme-alabek ikasten dihardute, baita nik ere... Pozik gaude hemen”, diosku irribartsu.

“ Anu Khalifa kio ”
“Khalifa naiz”



Pitzadura eta putzu artean

Pilotan, palan, patinetean... Eibartarrok modu askotan saiatzen gara Altzubarrengo frontoiaz gozatzen. Aukera dagoenean behintzat. Izan ere, erabiltzaileak frontoiaren egoera kaxkarraz kexu dira eta arazoari buelta emateko konponbide bila dabilta... Emaitzak lortu gabe. Baina, zeren kexu dira erabiltzaileak zehazki? Jarraian argituko dizkizuegu arrazoiak.

Altzubarrengo frontoira sarri joaten den emakume batek eman digu frontoiaren egoera kaxkarren berri. “Sarritan joaten gara Altzubarrengo frontoira. Izan ere, semeak pilotan egiten du eta asteburuetan han entrenatzeko aprobetxatzen dugu”, esan digu telefonoaren beste aldetik.

Batzuetan, ostera, nahi eta ezin, frontoiaren “egoera tamalgarriak” beste alternatiba batzuk bilatzera eramaten die-lako. Askotan, Altzubarrenera joan eta ezinezkoa da pilotan egitea. Beraz, autoa hartu eta beste frontoi batzuren bila joaten gara, umeez pilota egin dezaten”, azaldu digu.

Bere esperientziari jarraituz, “oso ohikoa da frontoian putzuak izatea eta lurra zikina egotea”. Azken egunotako eguraldi lehorraren ondorioz ez dugu horrelakorik ikusi, baina artikulua ilustratzen duten argazkietan atzeman daitekeen

bezala, Ranpa eta Truko skate taldekoekin bertan izan ginean, emakume honek deskribatzen duen egoera ikusi ahal genuen frontoian: putzuak nonahi, paperak eta bestelako zaborrak lurtean, lur irristakorra... Ezin zen esan pilotan egiteko egoera egokiena zenik.

Jaso dugun kexaren arabera, aspalditik gertatzen den arazoa da hau eta erabiltzaileak

“Oso ohikoa da Altzubarrengo frontoian putzuak izatea eta lurra zikina egotea”

arazoa konpontzen saiatu dira, Udaltzaingoari jakinaraziz eta abar, baina ez dute konponketa arrastorik ikusten. “Sarritan deitu dugu Udaltzaingora, baina eurek diote frontoia zaintzea ez dela euren ardurara, umeen parkeak zaintzeko ardurara dutela bakarrik”, esan digu emakumeak.

Horren aurrean, erabiltzaileek beste irtenbideren bat edukitzeko aukera jasotzen dute? “Ez, ez digute gauza handirik argitzen. Ez digute esaten norena den frontoia ondo mantentzeko ardurara eta Udaltzako zerbitzuen sailera oharra igorriko dutela erantzuten digute, besterik ez”, gehitzen du.

Bide hori jarraituz ez dute erantzunik jaso eta, kexatu diren arren, ez dute hobekuntza saiakerarik ikusi erakundeen aldetik. Beraz, frontoia egoera berdinean jarraitzen du, pilotarako edo beste edozein ekintzarako egiteko aukerak eman barik. ■





Leire Narbaiza

LEIRE NARBAlZA

Jan platanito, bihotzito!

«Hartu txokolate, eta jan bokadillo. Nahi dozu platanito, kariño? Jaizuz frutitak! Emoidazu patxito, bihotzito». Halakua errez-errez entzuten dira Eibarko kalietan, batez be umiak egoten diran parke eta lekuen inguruetan. Harritzekua, benetan. Gaztelaniak eta euskeriak konpartitzen daben berberi guraso eta zaintzaile askok ez detse azkenenako "a" hori jartzen, jakin dakigunian edozein euskalduneri preguntatu ezkerro, beti deklinatuta esango dabena: "Zelan esaten da puerta?" "Atia". Iñork ez dau erantzungo *ate*, hiztegiaren begiratu ezik. Baiña, orduan, zergaitik *txokolate*, *platanito*, *txorizo*... -a barik? Iker Jimenezeri deitzekotan nabil, ia misterixua argitzen deskun.

Beste misterixoa paranormal bat da txikigarri edo diminiutibuenak. Gaztelaniaz umiekien eta jatetxietan oso erabilitta (*vinito*, *verduras*, *patatas*... hala esanda gitxiago bete edota gizenduko ete dabe produktuok?). Ba, beti pasatzen dan moduan, erderazko "bizuiak" euskerara pasatzen dira, eta umien parkiak *frutitez*, *platanitoz* eta *patxitoz* bete dira. Hau guztiau Maritxu,

Zer esan bihotzitzen gainian? Entzun nebanian begiak talo eginda geratu jatazen, eta belarrixak odoletan. Bihotzito! Halakorik inoiz entzungo nebanik be!

Mirentxu eta Juantxozen jositako herrialdean. Sagutuak be badakaguz, barkatu *saguchus*. Halandabe, patxo berbia nahiko txiki ez jakue begittantzen, eta "ito" egin bihar izan dabe *patxito* bihurtuta. Ze nezesidade?

Larkerixa hórren guztiorren artian, maittasun berbak emoten deste atentziñua: *bihotzito* eta *kariño*. Zer esan *bihotzitzen* gainian? Entzun nebanian begiak talo eginda geratu jatazen, eta belarrixak odoletan. *Bihotzito!* Halakorik inoiz entzungo nebanik be! Zein burutatik urten leike halako zatarkerixiak? Kontu batzuk ez dittut aitzen, bentan...

Eta *kariño* berbaz zer esan? Beti entzun izan dot afektu berbak dirala gatzen aldatzen. Gaur egun ez, antza! Eta hori maitte-maitte egitteko berba mordua dakaguz euskeraz: pitxin, maitxia, amante, laztana, bihotza... Baiña gero eta gehixago *kariño* entzuten da. Aldrebesa guria, gero, *bihotzitos!*



Asier Ezenarro

ASIER EZENARRO

Aldaketa Txilen?

Aurreko domekan hauteskunde orokorrak egin ziren Txilen. Eskuineko hautagaia Jose Antonio Kast izan zen, neoliberalak, baina ez faxista, batzuk esaten zuten bezala. Faxismoa estatista da eta Kast eta Hegoamerikan dauden beste hainbeste eskuindar utraliberalak izan dira beti. "Ezkerreko" hautagaia, Gabriel Boric, ikasleen, emakume langileen eta sektore desberdinen babesa jaso ditu eta, botoen %55arekin, nazio horretako hurrengo presidentea izango da.

Txile, 1973ko kolpearekin, laborategia bihurtu zen kapitalismoarentzat, eta han ezarri zituzten politika neoliberal asko (gero beste herrietara zabalduko zituztenak). Eta, Pinocheten diktadura amaitu zenean, gobernu demokratikoak FMI-ren menpe egon dira, kanpoko zorraren eta multinazionalen aginduak jarraitzen.

"Txile ikasgelako ikasle onena izan da, baina baita adiskide txarrena ere"

Hegoamerikan ohikoa izan da diktaduren eta demokrazien arteko jarraipena politika ekonomikoetan. Txilek lotuta jarraitzen du nazioarteko itunen bitartez.

Eta zer egin zuen Bacheleten "gobernu aurrerakoiak" horren aurka? Pobrezia eta azpienplegua igo dira han, bai Bacheletekin eta baita eskuineko Piñerarekin ere.

Kontserbadoreak eta sozial-

demokratak; badirudi ez dagoela beste aukerarik.

Ezkerrek, benetan botere irautzailea eta desberdina eraiki nahi badute, ezin dira gelditu "Arco Iris"-eko aurrerakotasun batean. Ezinbestekoa da benetazko prozesu konstituziogilea eraikitzea, atzerriko zorrarekin eta nazioarteko itunekin amaitzeko.

Txilek oraindik gai larriak ditu konpondu gabe: ezegonkortasuna, gizarte bazterketa, jubilazioak, mapucheen lurraldeetan gertatzen dena, etabar. Eta, garrantzitsuenen artean, bere lurralde nazionalaren babesa aurkitu behar du atzerriko botere transnazionalen aurrean.

Carlos Perez Soto filosofo txiletarren hitzetan, "badirudi Gabriel Boric Bachelet II" izango dela. Washingtonen ikuspuntutik, Txile Latinamerikako nazioen artean ikasgelako ikasle onena izan da, baina... aldi berean adiskide txarrena Hegoamerikako beste herrietan.

Txilen inoiz izan den presidente gazteenak ezkerreko politikak bultzatu beharko ditu eta atzerriko eta barneko kapitalisten aurkako politikak garatu. Horretarako prest al dago Boric, edo batukada erraldoi batean geratuko da guztia?

Arkupe eta Baratzek irabazi dute VI. Gilda Lehiaketa

Epaimahaiaren saria eraman du Arkupek eta herritarrena Baratzek. Aurten, lehenengo aldiz, Aipamen Berezia banatzea erabaki du epaimahaiak. Ego Gain kaleko Bacolekuk jaso du aitortza hori.

2020ko Gilda Lehiaketa bete-betean harrapatu zuen pandemiak eta lehiaketako hirugarren egunean bertan behera gelditu behar izan zen VI. edizioa. Aurten seigarren edizio hura berreskuratu nahi izan du ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta joan den astean egin zen lehiaketa. 23 tabernak jardun dute lehian, ohiko kopuruari eutsi zaio beraz, “eta pozik gaude, bizi dugun egoeraren aurrean esfortzu handia egin baitute tabernariak”, dio epaimahaiak. Ruben Etxaniz, Mireia Alonso eta Josu Mugerza hirukoteak jardun du aurten ere gildak dastatzen, eta erabakia ez da erraza izan: “Tabernarien lana txalotu nahi dugu. Kalitate handiko produktuak erabiliz gilda bikainak egin dituzte, batzuk tradizionalagoak izan dira eta beste batzuk berritzaileagoak, baina guztiak erakutsi dute maila altua. Gildarik onena aukeratzea ez da erraza izan”. Arkupeko gildak irabazi du epaimahaiaren saria: “Gilda tradizionalaren kalitatea zeukan, romanesku saltsaren tomateak freskotasuna ematen zion eta tipula-kimuak toke desberdina”.

Arkupeko Iñaki arduradunak pozik jaso du berria: “Gildaren zaporeak indartu nahi izan ditugu, baina azentu tradizionala galdu gabe. Bestalde, orain dela hilabete lantalde berri batek hartu du sukaldeko gidaritzeta eta errekonozimendu honek indarra ematen digu aurrera jarraitzeko”.

Baratzek, berriz, herritarrek emandako saria bereganatu du.



Izan ere, lehiaketan partu hartu duten tabernetan bezeroek bozkatzeko kutxak egon dira lehiaketak iraun duen bitartean. 2.000tik gora bozka jaso eta zenbatu ondoren Baratzeko gilda izan dela onena erabaki dute herritarrek euren botoaren bitartez. Baratzeko Unai ere pozarren agertu da sariarekin: “Ilusio handia egin digu herritarren saria jasotzeak. Agian errazagoa da epaimahaia ados jartzea herritarren bozketan puntuazio ona edukitzea baino. Gure gildari dagokionez, gildaren zaporeari eutsi nahi izan diogu, baina itxura aldetik gaurkotu egin dugu”.

Aipamen berezia lehenengo aldiz

Gilda-lehiaketak sari bi izan ohi ditu, aurten arte; izan ere, epaimahaiak aipamen berezia egin nahi izan dio Ego Gain ka-



lean dagoen Bacolekuri. “Ogiaren gaineko tomateak ematen zion freskotasuna, osagaien arteko oreka eta kalitate/prezioa nabarmendu nahi ditugu. Oso gilda gozoa egin du”, epaimahaikideek.

Bestalde, tabernetako gildak bozketan parte hartu duten herritarren artean asteburuko egonaldia zozketatu du ...

eta kitto!-k eta irabazlea Itxaso Larreategi izan da.

BIDEOA IKUSGAI



Gabonetako zozketako zenbaki irabazleak

Jarraian dituzuen zenbakiak dira ...eta kitto! Euskara Elkarreak gabonetarako antolatu duen zozketako irabazleak. Irabazleetako batzuk pasatu dira bulegotik euren sariak jasotzera baina oraindik baten batzuk falta dira, orri honetan dituzuenak, hain zuzen ere. Abenduaren 28ra arteko epea dute (00:00ak arte) sariak jasotzeko. Hortik aurrera, ordezkoen txanda izango da. Hurrengo asteko alean argitaratuko ditugu. Bitartean begiratu ondo etxean edo soinean dituzuen rifak, agian zerrendako zerbeit zuena da-eta!



1. EL CORTE INGLES	500 €-ko OPARI TXARTELA	4162	46. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	4533
3. BENICoba	PATINETEA	4290	47. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	1549
5. JAZ ZUBIAURRE	IRABIAGAILUA	5031	48. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	3927
9. JORGE VEGA	ORAL B VITALITY HORTZETAKO ESKUILA ELEKTRIKOA	1139	51. ZORIONAK	LARUNBAT GOIZEKO TAILERRA	737
10. EMANKOR TALDEA	BLACK DECKER XURGAGAILUA	7249	53. ZORIONAK	LARUNBAT GOIZEKO TAILERRA	1829
11. EMANKOR TALDEA	ILE-MOLDATZAILEA	3658	54. UNZAGA PLAZA	AFARIA-BI LAGUNENTZAKO	944
12. EMANKOR TALDEA	CECÓTEC PISUA	2255	55. ARTOLA	MENUA-BI LAGUNENTZAKO	1481
14. EIBAR BUS	PHILIPS ILEA MOZTEKOA	1911	56. AKARA	MENUA-BI LAGUNENTZAKO	1021
15. EIBAR BUS	VALIRA TERMOA	966	58. IZADI	LORE ZENTROA	2275
16. EIBAR BUS	TAURUS TXIGORGAILUA	2803	59. ASKASIBAR	MOTXILA BAT ETA MIKROFIBRAKO TOALLA	9238
17. INDUSTRIAS M A I L	TABLETA	1917	60. ASKASIBAR	MOTXILA BAT ETA MIKROFIBRAKO TOALLA	8591
20. INDUSTRIAS M A I L	IRRATIA	1956	62. EIBAR SASOIAN	IMBALANCE KLASE BAT	1556
21. INDUSTRIAS M A I L	SOLAC KAFETERA	9561	63. EIBAR SASOIAN	IMBALANCE KLASE BAT	6730
23. MUGIKA HARATEGIA	70€-KO EROSKETA BALEA	8682	64. GRATZINA	BOLTSO BAT	3523
27. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	2207	65. GRATZINA	BOLTSO BAT	1147
30. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	6734	66. IREI ESTETIKA	AURPEGI-GARBIKETA	835
32. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	5083	68. EIBAR FUTBOL TALDEA	BUFANDA ETA BANDEROLA	5016
34. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	3744	72. KOPÍÑA	JOTT MOTXILA	8658
36. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	666	75. GURIDI	GOMEZ DE SEGURA MAGNUM BOTILA	4199
37. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	1976	77. BAISI	ENATE TXURIA MAGNUM BOTILA	2359
39. TORREKUA GASOLINDEGIA	30 €-KO GASOLINA BONOA	2428	78. DEPOR	MAILLOTA	6117
40. KANTOI GASOLINDEGIA	25€-KO GASOLINA BONOA	1101	80. Ane Campos nutrizionista	GORPUTZ AZTERKETA	1955
43. SOSOLA	GAZTA	969	81. Maider Carrasco estetizista	AURPEGI-GARBIKETA eta HIDRATAZIOA	2848
45. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	3616			



Familia berbalagunak Alluitz Naturan izan dira

>>> Eguraldi bikainak lagunduta paraje ezin ederragoa bisitatu zuten zapatuan guraso berbalagunek eta euren familiek. Alluitz mendiaren magalean dago Alluitz Natura, Urkiolako Parke Naturalean. Patxi Solana bertako artzainak bere eguneroko bizitza eta zereginak partekatu zituen familiekin.

Goizean goiz Eibarren autobusa hartuta abiatu ziren hamar familia Abadiño-rantz. Baserri atarian etxeko txakurrak, ardiak eta katua eibartarroi ongi etorria egiteko zain, eta atzetik Patxi eta Lorea alaba. Goiz osoko egitaraua izan zuten. Lehenengo eta behin, etxeko txikienek artile-tailerrean hartu zuten parte, eta, artilea lantzen ikasi ondoren, eskulan

polita egin zuten. Gurasoek, bitartean, gatzatua egin zuten Idiazabal gaztaren inguruko azalpenak entzuten zuten bitartean. Eta hortik talo tailerrera, gozoa, txokolatez betea. Orea egin eta gero plantxan egin zituzten taloak haur eta helduen gozamenerako.

Kortan aurkitu zutena ere guztien gozagarri. Laurogehi ardi, ahariak eta ahuntzak eta hiru poney, etxekotuak guztiak. Izan ere, orain dela urte batzuk erabaki zuten Patxik bere baserriaren jarduna bisitetara soilik dedikatzea. Orduz geroztik, "askoz zoriontsuago bizi gara guztiok, bai ni eta baita animaliak ere", diosku.

Eibartik joandako bisitariiek jaten eman zieten ardiei, biberioia eta pentsua, esku-

tik muturrera, poneyen gainean ibili ziren txikiak eta ardiak nola jetzen dituzten ere erakutsi zien Patxik.

Etxetik eramandako jatekoa baserriko txoko batean goxo-goxo jan eta gero, pozarren itzuli ziren familia berbalagunak.



Tor magoaren ikuskizun arrakastatsua

>>> Aurreko barixakuan dozenaka familia elkartu ziren Errabal Plazan Tor magoaren ikuskizun paregabeaz gozatzeko. Etxeko gaztetxoenen irribarrea eta lilura ez ziren txikiak izan eta maila berekoa izan zen gurasoen gozamen. Ikuskizun honekin agurtzen du Gurasoak Berbetan egitasmoak 2021. urtea, baina urtarrilean eta ikasturte osoan zehar edozein gurasok, zaintzailek, aitxita- amamak eman dezake izena. Urte osoan dago izen-ematea zabalik.

Gurasoak Berbetan programaren helburua familietan euskararen erabilera bultzatzea da, eta horretarako beste guraso batzuekin elkartu eta ondo pasatzeko aukera eskaintzeaz gain, euskara praktikatzeko taldeak ere eskaintzen dizkie gurasoei.

Bizipoza elkarteak boluntario kanpaina jarri du martxan. “Bizipoztu zaitetz!”, dio kanpainaren goiburua. Izan ere, laguntza emateaz gain, boluntarioek asko jasotzen dutelako esperientzia horretatik. Entzun bestela Elias Arizmendiren lekukotza Bizipoza elkarteak bere web orriaren eta sare sozialen bitartez zabaldu duen bideoan. “Boluntario moduan hasten zarenean zertan lagundu ahal dezakezun pentsatzen hasten zara eta oso denbora gutxian konturatzen zara ematen duzuna baino askoz gehiago jasotzen duzula”, dio boluntarioak.

Arizmendiren lekukotza ez da bakarria izango. Izan ere, astelehenean hasi zen boluntario kanpaina honetan zortzi bideo zabalduko ditu Bizipozak, zenbait boluntarioen berbak eta esperientziak jasoz. Horrela, hilaren 20koaz gain, 23an, 25ean, 27an eta 30ean eta urtarriaren 2an, 5ean eta 9an bideo berriak emango dituzte bizipoza.eus/bizipoztu webgunean eta sare sozialen (Facebook, Instagram eta Twitter) bitartez. Bertan, boluntario lana zertan datzan azalduko dute, bakoitzak bere ikuspuntutik.

Iaz hasitako bidetik jarraituko du aurtengo kanpainan Bizipoza elkarteak. “Mota askotako elkarteek osatzen dute Bizipoza, proiektu ezberdinak garatzen ditugu eta, aurrera egiteko, ezinbestekoa da boluntariotza eta auzolana”, esan digu Leire Elizegi Bizipozako kideak. “Beti gabilta pentsatzen boluntariotza nola sustatu eta iaz bide berri bat hasi genuen, dagoeneko boluntarioak diren lagunen esperientziak kontatuz, lehen pertsonan kontaktu dezaten zer den Bizipoza elkartean boluntario izatea. Ondo funtzionatu zuen eta aurten ereduarekin errepikatu dugu”.

Elkarteen behar zehatzak

Gauzak zehazte aldera, Bizipozak elkarteen beharrak aztertu eta egin beharreko lanak zeintzuk diren definitu ditu. Kan-

Bizipoza emateko boluntario bila

Bizipoza 36 elkarte osatuta dago, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu duten elkarteak. Bizipozaren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak, eta bere oinarrian, jakina, pertsonak daude. Beraz, elkarten jarduna aurrera eramateko ezinbestekoa da boluntariotza.



painan ikusi dezakegun bezala, bederatzi elkarte behar dute laguntza eta webgunean ondo adierazten da zein izango den boluntarioek egin beharreko lana.

Bizipozak Euskal Herri mailan egin du lan eta elkarteak

ere lurralde osoan daude zabaldua. Kasu honetan, hauek dira boluntario bila dabiltzan elkarteak: Aspanif (web orrialdea euskaratzeko itzultzailea; eta desgaitasun-dependentsia arloarekin aholkatzeko abokatua, gizarte-langileak edo gaiari bu-

ruz dakiten boluntarioak behar dituzte), Aspanovas (itzultzaile lanak egiteko laguntza behar dute), Beroa (trebetasun desberdinak dituzten begiraleak: magia tailerra, pailazo tailerra, ipuin kontalaria, eta abar); Gipuzkoako Harrera Familien Topaketa antolatzen dutenean 60-80 haur eta nerabe edukitzen dituzte, eta ekinga ezberdinak burutzeko, ondo etortzen zaie laguntza; eta itzulpen-lanak egiteko ere boluntarioak behar dituzte, urtean pare bat aldiz, dokumentazio asko dutenean, oso lagungarria izaten zaielako), Bihotzez (euskartzela lanak egiteko boluntarioak behar dituzte), Chernobylen Lagunak (urtean bizpahiru hilabetez idazkaritzan laguntzeko pertsona bat), Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioa (zapatuertako, denbora librean parte hartzeko boluntarioak; noizbehinka adimen urritasuna daukaten pertsonen euskarazko klaseak emateko boluntarioak; sare sozialekin laguntzeko boluntarioak, nola kudeatzen diren azaltzeko eta klabeak emateko edota sare sozialak kudeatzen laguntzeko pertsona; eta dokumentuak euskarara itzultzen laguntzeko pertsonak), Bortzirietako Guztio Taldea (terapietan, aisialdian eta irteeratan laguntzeko pertsonak), Pausoka (Hernanin eta Urnietan dituzten zentroetan dauden konponketa lanak egiteko laguntza behar dute; eta maiatza ingururako presatzen ari diren Pausoka Egunerako laguntzaileak ongi etorriak izango dira) eta Mindara (momentu honetan begirale falta dute, lantaldea berrantolatzen ari dira, eta bi edo hiru begirale behar dituzte).

Boluntario bezala izena emateko interesa izanez gero, hasieran aipatutako webgunean, elkarte bakoitzak dituen beharren ondoan boluntario egiteko estekak aurkitu ditzakezue eta, informazio gehiago behar izanez gero, Bizipozaren webguneko 'kontaktua' atalean eurekin harremanetan jartzeko bideak aurkituko dituzte.



Ezkerreko argazkian, Bizipozaren postua Durangoko Azokan. Goiko argazkian, Bizipozako zenbait kide.



Dagoeneko boluntarioak diren kideen testigantzak bideoan jaso ditu Bizipoza elkarteak boluntario kanpaina egiteko.

Boluntario kanpaina urtarilaren 9an amaituko da. Horrela, izena emanaz gero, 130 lagunek osatzen duten sarea indartu ahal izango du Bizi-

pozak. Sare konprometitu eta gertuko. “Elkarren berri izaten saiatzen gara urte osoan zehar eta, ahal izan denean, topaketak egin ditugu”, esan

“Oso denbora gutxian konturatzen zara ematen duzuna baino askoz gehiago jasotzen duzula”

digu Elizegik. Izan ere, pandemiaren ondorioz ezin izan dituzte horrelako ekintzak egin, baina aukera dagoenean ohiko jardunarekin jarraitzeko helburua dute, gogo handiarekin gainera.

Euskararen garrantzia boluntariotzan

Zerrendan ikusi daitekeen bezala, elkarte bakoitzak behar

jakin bat du eta batzuetan boluntario izateko gai zehatz batean nolabaiteko jakintza behar da, “baina boluntario izateko ezinbestekoa da laguntzeko eta emateko gogoia edukitzea, eta baita jasotzeko ere”, azpimarratu digu Elizegik. “Horretarako, garrantzitsua da Bizipozaren baloreekin bat egitea: elkartasuna, maitasuna, aniztasuna, euskara...”, gehitzen du.

Euskarak berebiziko garrantzia du Bizipoza osatzen duten elkarten barruan. “Euskaratik eta euskaraz egiten dugu lan, hizkuntzak batzen gaituelako”, diote elkartetik. “Egunero borrokan dagoen hizkuntza da eta enpatia handia sortzen da hor. Polita da elkarteek euskara euren bidelagun dela sentitzea”, euren ustez. Hala ere, ez dute EGA edo bestelako titulurik eskatuko boluntario izateko, euskara erabiltzea eta euskararen aldeko jarrera edukitzea nahikoa da.



Eibarren, erosketak euskaraz

Orain dela pare bat aste 'Eskatu eskaini euskaraz' kanpainari buruz egin genizuen berba. Merkataritzan euskara sustatzeko asmoz egiten du bat egitasmoak, eta tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatzea eta merkataritza nahiz bezero euskaldunak aktibatzea da bere helburua. Horrela, aurrekoan dendariekin berba egin bagenuen, gaur bezeroenagana jo dugu, erosterakoan dituzten hizkuntza ohiturak ezagutzeko.

Denbora gutxi geratzen da Maridomingi eta Olenzero opariak banatzen hasteko, eta herriko dendetan nabari da ez dela ohiko jarduna. Hau atera, bestea prestatu, opariak bildu... Ekintza asko, baina lasai, herriko dendetan irribarre batez hartuko zaituztete. Gertukotasuna da, besteak beste, herriko merkataritzaren ikurretako eta indarguneetako bat, eta hori ezin da inon erosi; baduzu edo ez duzu.

Eta erosleek, zergatik egiten dituzte erosketak herrian? Zer baloratzen dute gehien? Hizkuntzari dagokionez, nola egiten dute? Euskara erabiltzen da herrian erosten denean? Kalera jo dugu hiru laguni galdera horrek egiteko eta, artikulu honetan euren erantzunak jasotzeaz gain, orri honetan ikusi dezakezuen QR kodearen bitartez beraien berbak jasotzen dituen bideora jo dezakezue.

Leire, Julian eta Gorkarekin egin dugu bat kalean eta hiru-

rek herrian erosteko aldarria-rekin bat egiten dute. "Ahal dudan guztia herrian erosten saiatzen naiz", esan digu Leirek, eta berdintsu azaltzen da Julian. Are irmoagoa da Gorkaren erantzuna: "Jakina, eibartarra izanda Eibarren erosi behar duzu, bestela akabo".

Herrian erosteak dituen onurei buruz honako erantzunak bota dizkigu hirukoteak. "Batetik, herritarron dirua herrian geratzen da. Eta bestetik, dendak dauden tokietan jendea oinez dabil eta horrek bizitasuna ematen dio herriari", dio Leirek. "Herrian erosten badugu, diruak herrian zirkulatzen du. Agian diru-kopuru handiagoa gastatu dezakegu, baina moduren baten diru hori bueltatu egiten da (zergen bitartez, adibidez). Horrela, komunitate bat osatzen dugu", Julianen iritiz.

Erosketak, gainera, euskaraz egiten ditu hirukoteak. "Euskaraz bizi naiz eta ahal ditudan

"Dendetan euskaraz egiten badidate, erosketa egiteko bultzada sentitzen dut"

jarduera guztiak euskaraz egiten saiatzen naiz. Denda batera sartzen banaiz, lehenengo hitza euskaraz egiten saiatzen naiz. Gero, dendariak euskaraz egiten dit edo ez, baina niretzat erosketa-prozesu hori gustagarriagoa izateko modu bat da", Leirek dioenez. "Euskalzalea naiz eta euskal komunitatearen parte sentitzen naiz euskara erabiltzen dudanean", Julianen berbetan. "Dendetan euskaraz egiten badidate, erosketa egi-

teko bultzada sentitzen dut", esan digu Gorkak.

Teoria eta asmoak ondo daude, baina zer egin genezake merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko? Leirek erantzun garbia dauka: "Erabili". Gorkak dioen bezala, askotan, berba bakarra ("Egun on" esatea, adibidez) giltza izan daiteke euskararen erabilera sustatzeko. Julianentzat, os-tera, konpromiso kontua da: "Euskararekiko konpromisoa hartu eta gehiago eskatu behar-ko genuke euskaraz".

Eurek argi dute: Eibarren, erosketak euskaraz egingo dituzte. ■

BIDEOA IKUSGAI





Abian da Etxebizitza Asanblada

Debabailarako Kontseilu Sozialistak etxebizitza asanblada abiarazi berri du, zeinaren xedea egun bizi dugun krisi egoeraren aurrean doako eta kalitatezko etxebizitza unibertsalaren alde aurrerapausoak ematea den. Hala, datozen lerrootan ekimenaren sustatzaileetako baten testigantza jaso dugu, ekimenaren nondik norakoak ezagutzeko asmoz.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: MALEN ILLARRAMENDI
BIDEOA: YANIRE SAGREDO

Zer da etxebizitza asanblada?

Etxebizitzaren auziari modu eraginkorrean erantzuteko jaio da, langileriaren mesedetan jarduteko tresna gisa. Momentu honetan sortzen ari da, oraindik hastapenetan dago. Azaroaren amaieran zabaldu genuen aurkezpen-bideoa kontseilu sozialistatik sare sozialetan, eta data zehaztu gabe duen aurrez aurreko lehen agerraldian, Arrate Kultur Elkartearen, eratu berri dugun asanbladaren nondik norakoak gizarteratzeaz gain, abiatuko dugun lehen dinamika azalduko dugu.

Zein testuingurutan kokatzen da?

Covid-19ak larriagotutako krisi testuinguruan burgesia

eta kapitalismoa berrantolaketa fasean daudela ikusten dugu, xede izanik irabaziak nola handitu asmatzea. Horrek guztiak lan-esparruan soldaten murrizketak, lanbaldintzen okertzeak, kaleratzeak edo ERTE egoerak ekarri ditu. Horrez gain, bizitzaren garestitzea ere nabaria da, bereziki oinarritzko elikagaien prezioen igoera. Horrek ezinbestean etxebizitzaren auziari eragiten dio, eta egoera hau pobrezia-aurpegietako bat bihurtzen da. Etxegabetzeak, pobrezia energetikoa, desokupa mugimenduak... izango lirateke, besteak beste, gatazka honen adierazpenetako batzuk.

Hala, langileriak bere bizitza erreproduktzioarako hain premiazkoa duen beharra, etxebizitza, alegia, lorgaitza



“Herritarrak klase elkartasunaren printzipioaren baitan aldarrikapena egitera deitu nahi ditugu”

edo kontrolagaitza ikusten du, soldataren zati handi bat horretara biderratu behar baitu, izan hipotekara, izan alokairura.

Datu zehatzetara joanda, ikus dezakegu 2021eko lehenengo hiru hilabeteetan Hego Euskal Herrian 281 etxegabetxe eman zirela; horietako 213 Euskal Autonomia Erkidegoan. Aipagarria da, era berean, 110.000 pertsona muturreko pobrezia-egoeran daudela. Gainera, alarma-egoeran ezarritako neurriek indarrean jarraitzen dutenez, aurreikus dezakegu kontuak okerrera egingo duela.

Gure herrian, alegia, Eibarren, 2020. urtean, izurrite egoeran geundela, 10 etxegabetxe izan ziren, eta, 2013tik 2020ra bitarteko zazpi urteetan, 115.

Zein da zuen jarrera honen guztiaren aurrean?

Egoeraren larritasuna ikusita, Debabailarako Kontseilu Sozialistatik etxebizitzaren alorrean berebiziko premia ikusi genuen zerbait antolatzeko. Era horretan, herritarrak klase-elkartasunaren printzipioaren baitan aldarrikapena egitera deitu nahi ditugu.

Nork hartu dezake parte asanbladan?

Aurreko lerroetan aipatutakoarekin arduratuta dagoen edo etxebizitzaren alorrean ekarpena egin nahi duen oro izango da ongi etorria. Izan ere, nork bere aukeren arabera ekarpenak egiteko espazioa da asanblada. Gure asmoa hilabeteetan behin edo sei astetik behin elkartzea da eta bilera horietan mota askotako lanketak egingo dira.

Zein da zuen borrokaren helburua?

Doako eta kalitatezko etxebizitza unibertsalaren alde aurrerapausoak ematea da, besteak beste, gure xede nagusia. Horretara bidean, jendearen kontzientzia astindu eta etxebizitzaren alorrean antolatzea da gure asmoa.

Zein ekintza edo programazio aurreikusten duzue datozen hileotan helburua erdiesteko bidean?

Lehenik eta behin, geure burua ezagutzera ematea izango da egiteko nagusia, gero eta jende gehiagok ezagutu dezan gure borroka zein den. Horretarako, etxebizitzaren problematikara zuzendutako doako aholkularitza eskaintzen duen dinamikarekin hasteko asmoa daukagu. Etxegabetu behar zaituztela? Hilabete amaierara iristeko arazoak dituzula? Etxejabearen mehatxuak jasotzen dituzula? Jarri gurekin harremanetan!

Zein mezu bidali nahi diezu herritarrei?

Herritarrei asanbladetara bertaratzeko deia egin nahi diet. Etorri ezin direnei jakinarazi nahiko nieke gurekin harremanetan jartzeko beste bide batzuk ere badaudela, hala nola, telefonoz deituta, emailez edota sare sozialen bitartez. Izan ere, indarrak antolatuz eta klase-elkartasunez soilik egingo diogu aurre honi.

“Etxegabetzeak, pobrezia energetikoa, desokupa mugimenduak... izango lirateke gatazka honen adierazpenetako batzuk”

Arazoak dituzu etxebizitzarekin?

Zorrak metatuta daukazu eta ez dakizu zer gertatuko den?

Etxegabetze arriskuan zaude?

Kontratua amaitzen zaizu eta ez dizute berri nahi?



**Jarri gurekin harremanetan:
etxebizitzaasanblada@gmail.com
653534098**

Arazoak dituzu etxebizitzarekin?

Jarri gurekin harremanetan!

etxebizitzaasanblada@gmail.com

653534098



ETXEBIZITZA
ASANBLADA



Kontseilu
Sozialista
Deba Bailara

Bideoa
ikusi nahi?



Elkarrizketa honen BIDEOA
YouTube*n* ikusi daiteke.





Eibarko betiko kantak, Ustekaberen erritmora

Erabateko arrakastarekin taularatu zuten Ustekabe Fanfarreko kideek pandemia osoan egindako lana, eguenean eta barixakuan Coliseo antzokian Eibarko Koro Gaztearekin eta herriko hainbat gazterekin elkarlanean eskaini zituzten emanaldietan. “Eibarko Kantak” izeneko diskoan Eibarko hamaika kantu zaharberritu jaso ditu Ustekabe fanfarreak, “horietako batzuk estilo zeharo berrietara eramanez”. Arragueta Kalian, Cielito, Eibarko Herria, Forjarrien Kanta, Agur Esanda Banua Ni, Himno a Eibar, Eibar Tiene su Entrada, Venid al Pueblo de Eibar, Arrateko Ama, Hiru Gizon Ilustre eta Suite Eibartarra dira diskoan jaso dituzten abestiak eta, diskoaren lagungarri eta osagarri, kantu bakoitzari buruzko informazioa eta alderdi musikala jasotzen duen liburu-xka ere egin dute. Nahi duenak 10 eurotan eros dezake, jarraian aipatzen diren saltokietan: Ametsa, Zai-zoi, Guridi eta Amesti tabernetan, Corral arropa-dendan, Helmet House-n eta Arriola kioskoan (Untzagan eta Urkizun). **ARGAZKIAK: MAITANE CAMPOS**

BIDEOA IKUSGAI



<<< IÑIGO JIMENEZ • Todoterreneoen rallyak >>>

“Gure Patrolarekin irabazita, gero aukera izan genuen super prototipo batean ibiltzeko”

Gure herriko gidari honek ezustea eman zuen -eta hartu zuen, aldi berean- Villasana de Menan jokotutako todoterreneoen arteko lehiaketa irabazi zuenean. Bera eta Ander Alberdi kopilotoa probatzeko asmoarekin, "besterik gabe", joan baziren ere, lortutako ezusteko emaitza horrek hauspotu egin die eta gogotsu daude beste erronka berri bati heltzeko. Diru pixka bat ere hasi dira inbertitzen proiektuan eta euren modalitateko hurrengo lehiaketa non antolatzen duten zain ditugu honezkero. "Gogoko tokietan aldaparik ez dagoelako".

Zein itzaropen zenituzten proba hasi aurretik?

Argi esateko, ezer haundirik ez. Horregatik, azkenean proba geureganatzea, gure autoen modalitatean behintzat, ikaragarrizko ezustea izan zen.

Proba bi egunekoa izan zen, ezta?

Bai, urriaren 30ean eta 31n jokatatu genuen. Parte-hartzeare-

kin konforme ginen, bai, baina lehenengo egunaren amaieran ikusi genuenean Oñatiko beste batzuekin berdinduta geundela, hortik momentutik hasi ginen pentsatzen: eta, zergatik ez? Eurek akatsik egiten badute, aukera izan dezakegu zeozer ateratzeko. Zapatu arratsaldekoa puntuagarria zen, gauekoa ez, eta hurrengo egunekoa puntuagarria zen berriro.

Aurretik bazenuten esperientziarik horrelako probetan?

Ezta pentsatu ere. Todoterreneoen "mundutxo" horretan guztiz berriak gara. Orain gertatzen dena da hain esperientzia polita bizi izanda, zertxobait "pikatu" garela eta gogotsu gaudela bide horretatik jarraitzeko. Dena dela, ez da erraza mundu honetan aurrera egitea, federazioak eta halakoak ez

daudelako martxan oraindik; dena egiteko dago.

Burgoseko proba hori Villasana de Menan izan zen, ezta? Zein mailatan irabazi zenuten?

Espinosa de los Monteros herritik gertu dagoen herri horretan, bai. Proba, bere osotasunean, hiru mailatan zegoen banatuta: prototipoentzat, super prototipoentzat eta auto



Burgoseko lurretan urriaren azken asteburuan jokotutako uneetako bat. Gidariekin kontu handiz ibili behar izaten dute punturik ez galtzeko.

normalentzat. Guk, jakina, hasi berriak izanik azken horretan hartu genuen parte.

Zelako sariak irabazi zenituzten?

Asuntua da arlo horretako federazioerik ez dagoela eta, orduan, antolatzaileen eskuetan geratzen dira sari horiek zein motatakoak izan daitezkeen. Gure kasuan, korredore eta kopolito lizentziak eman zizkiguten, baita garaikur bat ere eta, azkenik, buelta bat emateko aukera superprototipo batekin.

Hemen inguruan egiten dira horrelako probarik?

Estatu guztian ez dago Txapelketa Erregularrik, hori hasteko. Gero, hemen inguruan ez da halako lehiaketarik egin orain arte. Bagenuen asmoa Andaluzian eta Galizian jokatzeak ziren hurrengoetan parte hartzeko, baina momentuz horiek ere geldirik daude. Galiziakoa zen orain jokatzeakoa, baina ulertzen dugu bertan behera geratu izana, han ere euri handiak jasan izan dituztelako eta lurrak seguraski demaseko zailtasunak eskaini ditzakeelako horrelako lehiaketa bat arazorik gabe aurrera ateratzeko.

Zelako zailtasunei egin behar zaie aurre horrelako probetan?

Putzuak egoten dira, jakina, zulo modukoak prestatzen dituzte eskabadorez baliatuz, hainbat zailtasun sortzen dituzte, gero puntuaketetan jokoa emango dutenak. Parte-hartzaileen funtzioa, bestalde, ahal dugun eta garbien pasatzea da, markatutako marrik zapaldu gabe eta akatsik egin gabe.

Autoak kalte handiak jasaten ditu horrelako proba bati aurre egitean?

Jakina, proba gogorrekin egin behar dielako aurre. Eta apurtutakoa konpondu egin behar da gero. Ballesta bat ere apurtu genuen, baina hori normaltzat jo beharko dugu. Kamioi txiki-



“Parte-hartzaileon zeregina izaten da ezartzen dizkiguten zailtasun eta oztopoei aurre egin eta maila txukunenean osatzea ibilbidea”

txo bati esker amaitu genuen proba. Nekea tartean, baina sentazio bikainak barnean.

Zure autoarekin zenbat urteko ibilbidea egin duzu?

Nissan Patrol zahar bat da gurea. Pentsa, beste auto batzuen kasuan, bakarrik euren erroberetan gure autoak balio duena baino diru kopuru handiagoa ipini dute. Han bertan barre ere egiten zigitela esango nizuke, ikusita zerekin genbiltzan lehiatzen. Horregatik, gure meritua ez zen makala izan Burgosekoa irabazita.

Aldaketak eskatuko zizkizuen autoak dagoeneko, ezta?

Jakina, erroberak gutxienez 38-39 pulgadakoak izatea eskatzen digu, eta gehienez ere tamaina horretakoak dira. Ka-

blea ere jartzea eskatu digu. Nire autoa serietik dator, ez dauka besterik. Orain ere erroberak zertxobait hobetzeko eskatzeko asmoa dut, baina hola-koak mila eurotik igotzen dira prezioan... Eta nik tailerrean egiten dut biharra. Horregatik, talde moduan funtzionatu beharra dugu.

Hau da, zure atzetik baduzu proiektu horretan laguntzen dizun taldetxo.

Bai, eurei eskerrak; batek bakarrik gauza gutxi egin dezake. Dena dela, modalitate honetan eskuderiak ez dira beharrezko. Horregatik, Zumarán Motor Sport dut bidaide. Garajes Legarre eta Mahoiak ere fin-fin ditut aldamenean, oso lagunak ditudala aprobetxatuz.

Talde polita, beraz, inguruan ere zeozer prestatzeko. Edo ez?

Hemen inguruan bagabiltza sei-zazpi lagun Eibarren zeozer antolatzea gustatuko litzazigukeena. Eskonbrera inguruneak begiratzen, zeozer egitekotan nondik nora jo daitezkeen asmatzeko.

Zein asmo dituzu hurrengo hilabeteotarako?

Otsailera arte edo, ibili, besterik gabe. Lokatzari eta mendiari lotuta bizitzea gustoko dut eta hor entrentatzen jarraitzeko asmoa dut. Ahalik eta hobetoen egiteko gero zirtz edo zart egiteko ordua heltzen denean.

Badakigu “Euskadi 4x4, Ayuda y Rescate”-ren familiaren barruan zaudela.

Bai, oso gustora gainera eurenkin. Burutzen dituzten ekimen guztien artean, aurrekoan, esaterako, Bilboko Ospitalean izan ginen bertako gaixoekin eta une gogoangarriekin gozatzeko parada ere izan genuen. Ekimen xamurra izan zen.

Arrate Eibar Eskubaloiko talde nagusiak bikain amaitu du urtea

>>> Gero eta sendoago dago 1. Nazional Mailan jokatzeko duen Fernando Fernandez taldea eta, azken hamar hilabetetan lortutako 27 liga garaipenekin, "harro egotea besterik ez dagokigu". Uharteko talde nafarrari ere nagusitasunez irabazi diote eibartarrek, sailkapeneko lehen erdialdean egonda partiduak bere zailtasunak izango zituela jakintzat emanda ere; azkenean, 25-32. Eibartarrek sei puntu ateratzen dizkiote Helvetia Anaitasuna bigarrenari. Ginga goxoa jarri zioten urteko pastelari gure mutilek igandean Uharteko taldearen pistan. Lehen zatian nafarrek markagailuari nahiko ondo eutsi

bazioten ere, atsedenaldirako hiru goleko errenta lortu zuten armaginek, eta bigarren alde hori ondo kudeatu zuten. Mikel Zuloagak lortu zituen gol gehien, zazpi, eta Lander Casadok eta Ander de Diegok bosna eskuratu zituzten. Urtarrilean itzuliko dira eibartarrek berriro kantxetara. Ereintza Aguaplast talde errenteriarra jasoko dute Ipurua kiroldegian hilaren 16an.

Senior mailako bigarren taldeek txanponaren bi aurpegiak ezagutu zituzten azken aste-buruan: emakumezkoek garai-pen itzela lortzen zuten bitartean Urnieta Quel Abogadosten kantxan (26-27), gizonzkoek ezin izan zuten ezer egin Txiki-



polit Zarautzen kontra (21-28). Hala ere, mutilek bosgarren amaitu dute fasea, eta neskek

zazpigarren postuan, baina aldapetan asko kostatzen zen arrankatzea.

Dena prest gaur egingo den Gabontrailerako

>>> Gaur goizean, 08:00etan abiatuta, ekingo zaio Gabontrailaren zazpigarren edizioari, betiko lez Kalamua Korrikalari Taldeak prestatutako bideari jarraitzeko. Depor aurrean izango dute irteera-puntua eta baita helmuga ere, eta guztira 15 kilometro eta erdiko distantzia osatu beharko dute, guztira 750 metroko desnibela gainditzeko, "bi ordu eta erditik hiru ordura, tarte ho-

rretan ondo osatu daitekeen proban". Azken urteotako ibilbide berbera prestatu dute antolatzaileek eta izaten du une berezia ere Gabontrailak: erdibidean Parlamentuan egiten duten brindisa, urte zaharra agurtu eta berria opatzeko. Santa Kurutzetik Kalamua tontorrera igoko duten bezala, gero handik bueltan Santa Kurutzetik jaitsiko dira berriro Eibarrera.

Gaizka Garitanoren taldeak bigarren postuari eusten dio

>>> Bidaia probetxugarria oso izan zen eibartarrentzat aurreko astean Kanariar irletara egindakoa: bi neurketa zail zituen aurrez-aurre, eta bietan garaile izan zen Ipuruako taldea. Teneriferen aurkakoa, egia esateko, zirt edo zart egiteko beste aukerarik ez zuen, Kopako partidua izanik ez irabaztekotan torneoari egur esan beharko ziotelako datorren denboraldira arte. Baina, Ligan egin zuten bezala, eibartarrek jakin izan zuten oraingoan ere hor goian euren borroka latzean diharduen Teneriferi irabazten. Bigarren neurketa ez zen errazagoa, aurkaria 1. Mailan hainbeste urtetan ibilitako Las Palmas taldeari egin behar izan zioten



bisita-eta. Orain arte jokaturako partidu "serioenetakoan", Garitanoren mutilek jakin izan zuten eusten Stoichkov taldeko goleatzaile nagusiaren golari eta, defentsan erakutsitako sendotasunari eta Joel atezainaren geldiketei esker,

hiru punturekin bueltatu ziren Eibarrera.

Jardunaldi horrekin amaitzen da lehenengo itzulia Liga Smartbank taldekoentzat eta bigarrenari Ipuruan ekingo diote Garitanorenek, sailkapenean gaur egun azkenaurrena

den Xabi Alonsoren Realaren filiala Ipuruan hartuta, Gabon Zahar egunez, arratsaldean. Kopan, bestalde, 1. Mailako Mallorca izango dute hurrengo aurkaria eibartarrek, Ipuruan partidu bakarrera jokatu den norgehiagokan. Eibartarrek 1. Mailan lagatuko tokia berreskuratu dute Balear irlokoek aurtan eta bertan dihardu jokatzeko Ander Ruiz de Galarretak, teknikoki prestatuz handiak eskaintzen dituen Eibarko erdilariak. Ez da Eibarko zaletuentzat eza gutzen duten bakarra: Garitanorekin Eibarren jardundako Angel Rodriguez eta Manixekin Eibarren ere jokaturako Lago Junior, aurrelariak biak, irletako taldean daude.

Julen Teran garaile izan zen etxean, arrakasta handiz Olabeko zelaietan jokaturako 70. Bolunburu Oroigarrian

>>> Eibarko Klub Deportiboko atletak garaipen handia eskuratu zuen domeka goizean jokaturako Bolunbururen lasterketa nagusian. 22 urteko eibartarrak sei segundoko aldea atera zion Goierri Garaiaiko Xabier Manzisidor bigarren sailkatuari eta 16 atera zizkion Ibai Makazagari, hirugarren postuan sailkatu zen Orioko Kamel Ziani AT taldeko atletari. Emakumezkoen proba nagusian, bestalde, Goierri Garaiaiko Lara Estebanez izan zen garailea, Xeye taldeko Eneritz Aramendi eta Nerea Arregi beteranoaren aurretik (azken hori irabazlearen taldekidea). Teranen garaipenarekin batera, bestalde, Jone Acuña eibartarrak 20 urtetik



Julen Teran berarekin podiuma osatu zuten Manzisidor eta Makazagarekin.

azpikoen mailan eskuratutakoa ere azpimarratu behar da. Eguraldia hotza izan bazen

ere, eguzkiak lagundu zuen giro aparta sortzen Olabeko zelaietan eta, horrela, Eibarko Klub

Deportiboak antolatutako proba arrakastatsu izaten. Eibarko kluba ordezkaten atleta asko eta eskolako gazteak izan ziren, tartean Markel Gutierrez, Kalka Gonzalez, Manex Gisasola eta Ugaitz Gartzia federatuak, gazte eskoletako 22 atletarekin batera: alebinetan, Ander Azurmendi, Marko Malaga, Jules Martinez, Haizea Magunazelaia, Nora Ortueta, Iraia Santos, Naia Astigarraga, Elene Beitia, Malen Anderez, Malen Vega, Irati Astigarraga, Julene Menezo, Elene Astigarraga, Maule Bernedo, Martina Egaña, Mara Olañeta, Noa Agirre, June Larreategi eta Maialen Arrazola; eta, infantiletan, Elene Arrazola, Irati Ariznabarreta eta Martina Ibarbia.

Aitor Hernandezentzat Iruñeako ziklo-krosa

>>> Specialized-Ermua Innpulso taldeko txirrindulariak ginga polita ezarri dio azken asteburukoari Iruñeako ziklo-krosean gailenduz. Modu horretan, bezperan (zapatuan) Amurrión eskuratutako podiumari azken garaipen horrek pisu berezia ematen dio. Aurreko denboraldian jokatu barik egon eta gero, berriro sartu dute Iruñeako proba euskal-nafar egutegian eta ermuarrak beste garaipen bat eskuratu du, lehendik ere helmuga horretan irabazle izanda, ondo

ezagutzen duen lasterketan. Nagusitasunez jabetu zen Hernandez, helmugatik egindako lehenengo pausoa abantaila handia hartua zuelako atzetik zetozenekiko, eta amaieran Asier Arregik eta Josu Torresek osatu zuten podiuma. Ermukoak zirkuitoaren gogortasuna nabarmendu zuen, "lokatik gabe, baina ez horregatik errazagoa. Lasterketan zegoen arripala ere gogorra zen, bizikleta gainean egin ahal zena, baina aldapetan asko kostatzen zen arrankatzea".



Ondo jokatu arren, Primera Iberdrolako Eibarrek galdu egin zuen Realarekin Unben

>>> Partidu polita izan zen, inolako beldurrik gabe jokaturakoa eta, Ana Junyent-eko jokalariek bitan markagailuan aurretik jartzeko gai izan baziren ere, azkenean hiriburukoek eraman zituzten hiru puntuak. Pena bat eibartarren kasuan; azken aldi hainbat jardunaldi daramatzate punturik lortu ezinik eta azkeneko bi postuetan daudenak, aldiz,

gero eta gertuago ikusten dituzte. Horregatik, lehenengo itzulia amaitzeko jardunaldi bakarra falta denean, Junyent-eren neskek bost puntu ateratzen diete Rayo Vallecanori eta zortzi Villarreali. Eibartarrak laugarrenak dira atzetik hasita, aipaturako bi horien aurretik Sporting de Huelva ere bada-goelako, Eibar baino puntu bat gutxiagorekin.

Astelena frontoiak profesional mailako txapelketa nagusiaren jardunaldiak hartuko ditu 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an

>>> Ohiko bidetik joz, Gabonaren bueltako sasoi honetan pilota profesionalak bere hitzordua izaten du Katedralarekin, eta oraingokoan ere bide horri jarraituko dio. Aurreko domekan, txapelketako bosgarren jardunaldiaren barruan, Baiko enpresako Laso-Imaz bikoteak Aspeko Ezkurdia-Tolosari irabazi zion, nagusitasun osoz. Eta bikote hori izango da, gainera, hurrengoko hiru jardunaldietako protagonista eszenategi berean: aurkariak Aspe enpresako ordezkariak izango dira lehenengo bietan, seigarren eta zazpigarren jardunaldietako

partiduetan, eta Baiko euren enpresako kideak zortzigarren jardunaldikoan. Zapatuan, abenduaren 25ean, Laso eta Imazek Irribarria eta Rezusta izango dituzte aurrez-aurre jaialdiko partidu nagusiak. Urtarrilaren 1eko jardunaldian Altuna-Martija bikotearekin neurtu beharko dituzte indarrak eta, azkenik, bigarren itzuliari hasiera emango dion jardunaldian, Baikoren arteko bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango da Astelena: Jaka-Marietzkurrena eta Laso-Imaz, nor baino nor, izango dira Errege eguneko jaialdian.



Astelena bezero fidelenak bihurtuko dira egun hauetan Laso eta Imaz.

Hiru talde ihes eginda, puntu bakarraren tartean, foball zaletuaren torneoak gabonetako atsedenaldira heldu denean



>>> Feredu Bar EzDok taldeak lidergoan amaituko du urtea foball-zaletuaren torneoaren sailkapenean, 21 punturekin. Puntu bakarrera ditu, bestalde, Bar Txoko eta Garajes Garcia, eta badirudi edizio hau irabazteko lehia aipatutako hiru horien artean izango dela. Hiruren artean bada talde bat, Txoko, partidu bat gutxiago jokatu duena, eta hori ere kontuan hartzekoa izan

beharko da. Atzetik Durango eta America Sport datoz sailkapenean, 15 punturekin, Ipur Sagardotegia eta Adagi Eraieder, 11rekin, eta pixka bat atzerago, azken postuen inguruko borroka guztiz sartuta, geratzen diren lau taldeak, oso maila berdintsuan laurak: JMR Tankemanas, Bar Banaka L. Rueda eta Bali Sports Center, zazpi punturekin, eta Chic, seirekin.

Aurreko asteburuan jokatutako azken jardunaldian, Txoko eta JMR Tankemansen arteko norgehiagoka bertan behera geratu zen, Covid-aren eraginez, eta goian dauden beste biak nagusitu egin ziren euren partiduetan: Garajes Garcia 4-0 garaitu zuen Bali Center Sports eta Feredu Bar EzDok taldea 2-1ekoarekin nagusitu zitzaion Bar Banaka L. Ruedari.

Ipuruako senior mailako gimnastek zilarrezkoa eskuratu zuten azken finalean

>>> Espainiako Kopako lehiaketako azken eguneko ariketa bikaina izan bazen ere Ipurua klubeko ordezkari nagusien aldetik, puntuazioan bigarren postuan geratuta, azkenean, txapelketaren sailkapen orokorrari begira egunean jokatu zena denez horko sailkapena zehazten duena, eibartarrak

berez seigarren geratu dira Espainiako txapelketan. Ohikoa izaten da, hala ere, final handi hori jokoan ipintzea lehen zortzi sailkatuen artean, eta hor bigarren sailkatu dira Ipurua-koak: "Kontsolazio saritzat jo dezakegu, bestelako ondoriozik ez duelako. Baina meritu handiko lorpena da!", diote



Hainbat torneo bereganatu ditu aurten Ipurua talde nagusienak.

eibartarren teknikariek. Ezin bestelakorik aipatu ikusita ei-

bartarrek burutu duten denboraldi ezin bikainagoarekin.

Eibarko errugbilariek galdu egin zuten liderraren aurrean

>>> Emakumezkoen Ohorezko Mailan jokatzeko duen Eibarko taldeak neurketa gogorrari egin behar izan zion aurre azken jardunaldian, aurreko jardunalditik txapelketaren bigarren itzulian ondo sartuta dagoeneko. Denboraldi honetan inoiz baino borrokatu dago lau onenen artean sartzeko lehia eta, Cristina Guntinen neskek Madrillgo lurretan izandako porrotarekin, eibartarrak hirugarren daude gaur egun sailkapenean, azken partiduko aurkariengandik sei puntura. Majadahondak 32 puntu ditu, 30ekin Sevillako Corteva Cocos-ek jarraitzen dio, eibartarrek 26 dituzte, Olímpico de Pozuelok 24 batu ditu, eta



Complutense Cisneros 21ekin da borroka horretan dagoen

bosgarren eta azkena, San Cugat (15ekin) eta CRAT (14re-

kin) pixka bat urrutirago geratu direlako. Madrilen jokaturako partiduari dagokionez, jokoan hasi eta berehala bi taldeek indartsu ekin zioten baloiaren eta jokoaren jabe izateko borroka horretan. Eibartarrek, gainera, lortu zuten baita markagailua zabaltzea ere, Emmaren entsegu bati esker. Baina Majadahondakoen erantzuna berehalakoa izan zen, azkar aurrea hartuta. Bigarren zatiaren hasieran markagailuak ez zuen alde handirik erakusten, baina hor hasi zen neurketa erabakitzen, madrildarren ihesaldiarekin; eibartarrek amaieraraino borrokatu zuten eta azkenean 49-24koa geratu zen betiko.

Euskal Ligako emakumezkoen taldea partidurik galdu gabe



>>> Denboraldi ezinhobea darama egiten Eibar FT-ko emakumezkoen bigarren taldeak eta, Euskal Ligako sailkapenean, hamabi partidutik hamar irabazita eta beste biak berdinduta, hiru puntuko aldea ateratzen dio Zarautz bigarren sailkatuari (hori talde horrek partidu bat gehiago jokatu duela) eta zazpi eta zortzi puntuko

tartea Erandioko Betiko Neskak eta Anaitasuna jarraian datozenei. Azken jardunaldian Leioako Emakumeak izan zuten aurkari eibartarrek, baina erraz nagusitu zitzaizen (0-3). Eibartarrek orain arte jokaturako partiduetan 51 gol sartu dituzte eta zortzi jaso, eta faborito argiak dira Liga hori eurenganatzeko.

Deporren hasi dira mendiko federatu txartelak tramitatzen

>>> Txartel horiek mendiko hainbat kirol desberdinetarako baliagarriak izan daitezke (mendia, eski alpetarra, snow, mendiko bizikleta...) eta modalitate horietan saiatutako kirolarietara Deporrek federatzea gomendatzen die, "aseguru berezia ematen duelako". Hilaren 14an hasi ziren tramite horiek egiten eta, "iazkoari jarraituta, tramiteak egunero egingo ditugu, martitzenetik zapatuta, 18:00etatik 21:00ak arte, Deporreko egoitzan".

Txartela tramitatzeko jarraitu beharreko urratsak honakoak dira: inprimakia jaso



Mendian federatuta egoteak abantaila asko eskaintzen dizkie kirolarietara.

eta bete eta, ahal den neurrian, etxetik inprimatuta eta beteta ekartzea eskertzen dute,

gero Deporren deskargatzeko; bankuan edo transferentzia bidez egingo da ordainketa;

inprimakiaren bi kopia eta ordainagiria bulegoan entregatu; eta, azkenik, txartela jaso (gutxi gorabehera 15 egun geroago).

Horretarako, ezinbestekoa da Eibarko Klub Deportiboko bazkidea izatea; bestela, Deporren bitartez federatu ahal izateko, "ez bazara bazkidea, eskatu inprimakia bulegoan edo deskargatu webgunetik, bete eta ekarri beteta". Diotenez, gainera, komeni da izan-abizenak NAN txartelean agertzen diren moduan zehaztea, "istripu-kasuetan atzerrian arazoak ekiditeko".



Perez sagutxoaren benetako istorioa kontatuko du GluGluK

Umeentzat bereziki sortutako kolanarekin etorriko dira GluGlu Producciones taldekoak martitzenean. Ugaitz Alegriak zuzendutako "Perez Sagutxo" euskaraz taularatuko dute Andrea Covadonga eibartarrak eta Jon Casamayor, Sara Berroeta eta Leire Ormazabalek, Coliseo antzokian, 17:00etan hasita. Ordubeteko iraupena duen ikuskizuna 3-9 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta

dago bereziki eta, dantzak eta kantuak antzerkiarekin tartekatuz, Perez sagutxo ezagunaren istorioaren egokitzapena kontatuko dute aktoreek: "Istorioaren erdigunean zaintza izango da, pertsona ahulenen zainketak hain zuen ere, hala nola etxeko zaharrena edota haurrena". Ikuskizunerako sarrikerak 5 euro balio du eta alde zuzenarekin zein egunean bertan erosteko aukera dago.



Kezkako dantzariak aritu ziren Gipuzkoako Urrezko Dominaren ekitaldian

Barixakuan ospatu zen Donostian 2021eko Urrezko Dominaren ekitaldia. Aurten Donostiako Gurutze Gorriaren Ospitalak jaso du domina eta, urtero bezala, ezpata-dantzarekin egin zieten harrera omenduei. Ikerfolkek gidatuta, Gipuzkoako hainbat herri eta taldeko dantzariak hartu ohi dute parte ez-

pata-dantza honetan, tartean Eibarko Kezka taldekoek. Euren batera, Arkaitz, Aurtzaka, Urki, Sahatsa, Argia, Itxaropena eta Haritz taldeetakoak aritu ziren. Elgoibarko Udaltzaletan Txistulari Bandak jarri zuen musika eta Ikerfolk eta Dantzan elkarteek koordinatu zuten ekitaldia.



Gabonetako kontzertua

Bihar emango dute Gabonetako kontzertua Usartza Txistulari Taldekoek, 12:00etan Untzagan. Metal boskotearen, perkusioaren eta ahotsaren laguntza izango dute eta, Euskal Herrian oso ezagunak diren Gabon kantuekin batera, Alemania eta Ameriketako doinuak ere joko dituzte: "Gabon abestiak" (I. Ansorena), "Gabonetako sonatxoa" (J.I. Ansorena), "Atzerriko eguberria" (J.I. Ansorena), "Alborada navideña" (Luis Urteaga), "Little drummer boy" (Ameriketako doinua), "Halleluyah" (L. Cohen; Mold: Xanet Arozena), "Last Christmas" (George Michael-Wham), "White Christmas" (Bossa nova, Ameriketako doinua), "American Christmas" (Ameriketako bilduma) eta "Martxa Radezsky" (J. Strauss; Mold: Ruper Lekue).

Aste honetan banatu da Txikitto!

Aste honetan, Gabonetako oporrak hartu aurretik, banatu da Txikitto! hilabetekaria Eibarko ikastetxeetan. Horrela, datozen jai egunetan aldizkaria lasai irakurtzeko aukera izango dute gure herriko haurrek. Txistek, denborapasak, ipuina edota ikastetxeetako berriei gain, oraingoan Urkizuko ikasleekin egon gara zuhaixkak landatzeko proiektua jarri baitute martxan. Horretarako, ezkurak batu eta landatu egin dituzte.



Topalekuko erakusketa amaitzean

Bihar itxiko ditu ateak Jose Juan Unzuetaeren erakusketak, Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. Eibarren jaio baina aspalditik Galizian bizi den eibartarrak okasiorako bereziki sortu dituen zeramika-lanak ikusi edo erosi nahi izanez gero, gaur eta bihar izango duzue azken aukera, 19:00etatik 21:00etara bitartean.



Hitzeekin adierazi ezin denean... MAITANE CAMPOS



MIGUEL TERUEL GARCIA-ABAD

2021-12-15

*"Pirinioetan barrena gabiltzanean
gure gomutan izango haiz"*

HIRE MENDIKO LAGUNAK



PEÑA TXINBERA



JESUS MARI HERMOSA ALBERDI
2021-12-20

**"Agur, Txuss.
Mila esker!"**



MIKEL FERNANDEZ HERNANDEZ

2. urteurrena: 2019-XII-21

**"BETI ERUANGO DOGU
zure irribarria gure bihotzetan"**

ZURE LAGUNAK



Miguel Teruel Garcia-Abad

(2021.12.15ean zendua)

Beti egongo haiz gurekin!

IPURUAKO LAGUNAK



Jesus Mari Hermosa Alberdi

Abenduaren 20an hil zen, 69 urterekin

**Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi
nahi diegu haren senide eta lagunel.**


...eta kitto! Euskara Elkarteak





Aurkitu 7 DESBERDINTASUNAK irudi bi hauen artean

L
A
B
I
R
I
N
T
O
A



	3		9	2			
	1	7	4				
	9		7	8	3		
					6	3	8
3	8					1	5
1	5	6					
		3	8	7		5	
				1	9	2	
		3	2			6	

2	9	8	6	2	1	7	4
3	2	1	9	9	8	9	7
9	5	1	2	9	8	6	2
6	2	1	6	2	9	5	1
0	1	2	9	7	6	9	0
8	6	9	0	1	6	2	2
1	9	6	9	4	2	6	9
2	6	5	9	6	9	1	8
9	9	2	9	1	1	6	9

soluzioa

S
U
D
O
K
U

8	9	2	4	9	0	1	1
7	6	0	2	1	8	0	7
1	6	9	6	9	2	2	5
0	2	8	1	1	9	6	2
6	1	9	4	0	5	9	8
2	9	8	9	0	1	1	2
9	2	1	6	9	9	4	0
8	5	1	2	9	6	1	8
6	9	6	1	8	7	1	2

soluzioa

	5				9		
	1		3	4	2	7	
				5		1	4
			9				2
8			2	3	7		9
6					8		
5	2		9				
		8	1	2	3		9
		3					8

Abenduak 24/30

BARIXAKUA 24

OLENTZERO

11:00/14:00 Olentzero eta Mari Domingiren bisita (bakarrik hitzordua aurretik dutenentzat). Udaletxeko patioa..



MUSIKA

19:00 Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua. Untzaga.



ASTELEHENA 27

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plazia, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

MARTITZENA 28


NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plazia, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.



ANTZERKIA

17:00 "Perez Sagutxo" haurrentako ikuskizuna, euskeraz, GluGlu Producciones-en eskutik. 5 euro. Coliseo antzokia.



EGUAZTENA 29

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plazia, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

EGUENA 30

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plazia, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.



ERAKUSKETAK

Abenduaren 24ra arte:

– "40 AÑOS DESPUES", Jose Juan Unzuetaren zeramika-lanak (Topaleku)

Urtarrilaren 9ra arte:

– "ONDAREARI BEGIRA" (Armagintzaren Museoa)

– EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA (Portalea)

Urtarrilaren 16ra arte:

– "COSMOLOGÍAS", Alicia Martin Lopez (Portalea)

– "MUGA/FRONTERA", Viviane Straub. (Portalea)



ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

ANTZERKIA

27an (astelehena)

17:00 Ermua Antzokia

"Botadun katua", Glu-glu konpainiarekin.



DEBAN

ANTZERKIA

28an (martitzena)

20:00 Kultur Elkarte

"Good sex Maritxu", KulturEkin barruan.



ELGOIBARREN

GABON BERTSO JAIALDIA

28an (martitzena)

22:30 Herriko Antzokia

Aner Peritz "Euzkitze", Oihana Arana, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea: Uxue Alberdi.



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Miguel Teruel Garcia-Abad.** 77 urte. 2021-12-15.
- **Andresa Elorza Juaristi.** 93 urte. 2021-12-15.
- **Jose Luis Montes Andres.** 58 urte. 2021-12-15.
- **Maria Elena Artetxe Bidaurrezaga.** 70 urte. 2021-12-16.
- **Mertxe Besoitagoena Aranburu.** 100 urte. 2021-12-18.
- **Angel Garate Alberdi.** 78 urte. 2021-12-20.
- **Jesus Maria Hermosa Alberdi.** 69 urte. 2021-12-20.

Jaiotakoak

- **Luciana Cogollo Alvarez.** 2021-12-10.
- **Osarugue Candace Mohamed.** 2021-12-11.
- **Miral Ereguibi Iaiche.** 2021-12-11.
- **Hugo Silva Fernandez.** 2021-12-11.
- **Oussama Aghbalou.** 2021-12-12.
- **Uxue Barrenetxe Sudupe.** 2021-12-13.
- **Markel Plazaola Otxando.** 2021-12-14.
- **Yulene Izagirre Alday.** 2021-12-15.
- **Enia Perez Merino.** 2021-12-15.
- **Yuri Barua Gallastegi.** 2021-12-18.

Farmaziak

BARIXAKUA 19

EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

ZAPATUA 20

EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

DOMEKA 21

EGUNEZ | **Morgado** (San Agustin, 3)

ASTELEHENA 22

EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

MARTITZENA 23

EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

EGUAZTENA 24

EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

EGUENA 25

EGUNEZ | **Lekunberri** (Isasi, 31)

BARIXAKUA 26

EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2021ean,
Izpizua (Ibarkurutze, 7)

MERTXE BESOITAGOENA ARANBURU

1921-09-26 / 2021-12-18



“Ez zaitugu ahaztuko, AMAMA”



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobe eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ANDER**, gaur 11 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **PAULE** Martin Gonzalez, gaur 7 urte betetzen dozuz-eta. Ondo-ondo pasa eguna. Musu pillua, maittia, Patxi eta Rosa zure aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, **MAREN**, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasa, txapeldun! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JON**, hillaren 22xan 3 urte bete zenduaz-eta! Laztan haundi bat amatxo, aitatxo eta Oierren partez.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

• **26an:** 17:00

“El refugio”

Zuzendaria: Macarena Astorga



1 ARETOA

• **26an:** 20:00
• **27an:** 17:00, 20:00

“El lodo”

Zuzendaria: Iñaki Sanchez Arrieta



2 ARETOA

• **26an:** 17:00, 20:00
• **27an:** 17:00, 20:00

“Spider-Man. No way hom”

Zuzendaria: Jon Watts



ANTZOKIA

• **26an:** 17:00, 20:00
• **27an:** 17:00, 20:00

“Mamá o papá”

Zuzendaria: Dani de la Orden



Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta koina. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna (unibertsitateko irakaslea) eskaintzen da umeak jaso, etxera lagundu eta eskolako lanetan laguntzeko. Baita nagusiei paseoan laguntzeko. 16:00etatik aurrera. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko. Titulua eta esperientziarekin. Tel. 643574998.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan lan egiteko edo beste edozein arlotan jardutan. Tel. 631363951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631109062.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazio ikastaroa eginda) eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 642-195774.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, umak zaintzeko eta bestelako lanetarako. Tel. 660542155.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642786320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 643929554.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta lorezain lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 645956966.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Tel. 643982534.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642787630.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta taberna edo jatetxeetan lan egiteko. Tel. 603568325.

6.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da jornada osorako Eibarren. Currículuma bidali: eibarraf@gmail.com
- Ilepaintzailea behar da. Esperientzia baloratuko da. Tel. 943254776.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 661955980.
- Lan egiteko honako hiru perfilak behar ditugu. Ezagutza informatikoak dituen (net, Java, Python eta Redes lengoaietan aditua), elektromekanikan aritua eta, azkenik, komertzial bezala. Bidali curriculumak: urkotronik@urkotronik.com. Berehala hasteko moduan.

- Estetizista behar da Eibarko ilea-paindegi baterako. Esperientziarekin. Lan giro bikaina. Tel. 943208125 eta 678674250.
- Modeloa behar da (mutila/neska) Giza Irudiaren marrazki klaseetarako. Tel. 622053933. Maite.
- Ilepaindegirako ofiziala behar da Elgoibarko ilea-paindegi batean. Jornada osorako. Berehala hasteko. Tel. 943246225.
- Langilea behar da Eibarko harategi batean. Currículuma bidali: eibarharategia@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2.. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasteko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia oparitzen da. Prezioa adosteko. Tel. 667549101.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua: 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INGURUEN
MANTENUA
SERBIZIOAK

E.I.T.
ERAIKINEN
MANTENUA
SERBIZIOAK

info@iteiet.com 943 943 80 10 00
AJT ERREFORMA S.L.
Barrua, 6 - Leioa esk.

ITURGINAK

Miguel Azpiri
ITURGINA

BEREHALAKO
ZERBITZUA
ematen da

– Konponketak
eta ordezkatzak
ITURGINTZAN
– Konponketak
eta irtenbideak
KALEFAKZIOAN

635 13 38 41

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
erretzak

aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
IUBARRIN, Irizazu 26oa (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMOIEN KOORDINAZIOA

Rosario, 15 - Elgoibar -
605 713 168 943 744 019

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

ERREKATXU, 3 -
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@kristaldegia.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arkitzaneko Zuhia

ELEKTRIZITATEA

THELECEER

TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.theleceer.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabillioia
Tfnua: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTORIEAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioak

Errebal, 21 www.bagliettoelbar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoelbar@kaiaso.com

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

GABONETAN ERE, HONDAKINAK BIRZIKLATU ETA IZAN GARBI!

*Denona da,
izan garbi*

 DebaBarrena

